

**ONDARRUKO ERTZAIN ETXEAREN BISITA  
VISITA A LA ERTZAIN ETXEA DE ONDARROA**

2017-10-23 Ondarroa 23-10-2017

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Herri agintariok; Eskualde honetako 12 udalerritatik etorritako Udal ordezkariok; herri ordezkariok, bai lurraldekoak eta baita Euskadi Autonomi Erkidegokoak, bai Autonomi Erkidegoan diren erakundeetan eta baita Euskadi ordezkatzu beste Erakundeetan zairenok ere; Ertzaintzaren buruzagiok, denak, Zuzendariaren handik hasita, Nagusiaren handik hasita, eta Unitatearen Nagusia eta gainontzeko guztiak, ertzainak zairenok eta herritarrok zairenok ere; jaun andreok, egun on.

Gaur Ondarruko Ertzain-Etxe berritu honen irekierak elkartzen gaitu eta, badakigu, hori baino gehiago ere elkartzen gaituena. Nik uste dut ikusitako bideoa oso esanguratsuak direla. Ez bakarrik fisikoki baita psikologikoki zer esan nahi duten eta baita garai batetik beste garai batera pasatutako esan nahia dutelako.

Bizi dugun etapa berriaren seinale bizia da ekitaldi hau. Terrorismo eta indarkeriaren etapa beltza atzean uzten ari gara, ahaztu gabe, bai, baina etorkizun berri bati begira. Etorkizun berri horrek “bizikidetza” du izena eta etapa berri honetan, ere, Ertzaintzaren papera, Ertzaintzaren zeregina azpimarratu behar dugu.

Lehenik eta behin, funtsezko oinarri bat berresten dugu gaurkoan: Ertzaintza polizia integrala da. Gure herriari zerbitzu osoa, integrala, eskaintzen diona. Gaur bizirik eutsi nahi diogu zerbitzu izpiritu horri, izpiritu horretan oinarritzen delako gu izateko arrazoia. Gu guztiok, hiritar bezela, izateko arrazoia Ertzaintzaren zerbitzuaren izpiritu horretan onairritu egiten da, bai lehen, bai orain eta baita etorkizunean ere eta hori argi eduki behar dugu.

Garai berri honen hasieran, jakin badakigu badaudela hobetu behar diren alderdiak. Horretan ari gara eta norabide bera duten hainbat inbertsio aipatu dira. Orain funtsezkoa da aurrez aurre, bertatik bertara, hobeto lantzea eta

eskaintzea pertsona eta gizarte eragile guztiei behar dituzten segurtasun zerbitzuak. Hori da gaur egungo zereginik eta nagusienetakoa.

Iniciamos una nueva etapa y la Ertzaintza fortalece su condición de policía integral y esto hay que subrayarlo una y otra vez: su condición de policía integral.

Vivimos un tiempo nuevo, miramos al futuro pero sin olvidar el pasado. Hoy en la Comisaria de Ondárroa comenzamos por reconocer el esfuerzo que habéis hecho, vuestra dedicación, vuestro sacrificio y vuestro compromiso pleno con la seguridad de Euskadi, incluso en los momentos más duros de terrorismo y de violencia. Y es necesario recordarlo permanente.

Os lo agradecemos, habéis sido un ejemplo. Eskerrik asko.

Ahora, esta Ertzain Etxea renovada simboliza el inicio de una nueva etapa.

Helburua da eraginkortasun handiagoa lortzea herritarrei laguntzerakoan.

Etorkizunari begiratzen diogu, baina hurbiltasunak, konpromisoak eta talde-lanak osatuko dute Ertzaintzaren izpiritua aurrerantzean ere.

Eskerrik asko orain arte egindakoagatik eta eskerrik asko aurrerantzean ere zuen zerbitzua eta konpromisoa eskaintzeagatik.

Esta Ertzain Etxea renovada simboliza el cierre de una etapa y el inicio de una nueva etapa pero la misma Ertzaintza de siempre, con los mismos valores y el mismo compromiso en un nuevo contexto de convivencia. Policía integral siempre. Servicio a Euskadi siempre. Ahora con mayor cercanía y proximidad. Ahora, el servicio de seguridad integral se ofrece en una relación más directa con todas las personas y con los agentes sociales.

Se han citado los principios que reitero: Cercanía, Compromiso y Trabajo en equipo van a seguir conformando el espíritu de la Ertzaintza.

Beraz, eskerrik asko egindakoagatik, zorionak harresi hau, ez bakarrik horma bat baizik eta harresia bertan bera geratu egin delako, zorionak berez zuen hurbiltasuna herritarren zerbitzura askoz be nabariagoa izango delako.

Eskerrik asko.